

Hiru kanpinetatik batek ez du gainditu azterketa, gabeziak eduki dituelako irisgarritasunean eta segurtasunean

**ESKAITZEN DITUZTEN EKIPAMENDU ETA
ZERBITZUETAN ERE HUTSUNE NABARMENAK
ANTZEMAN DIZKIEGU**

- Kanpadendak eta bungalowak boladan daude, eta hotelen izar distiratsua baino nahiago izaten ditu hainbat jendeak. Naturarekin harremanetan egoteko aukera eskaintzen dute, eta opor merkeagoak egiteko modua ematen dute *a priori*, eta, nagusiki, horrexegatik hautatzen ditu jendeak. Kanpadendak, izan ere, badu bere xarma. Espainiako Estatuan, 1.168 establezimenduk eskaintzen dute kanpalekua, kanpamentzat bezala auto-karabanentzat, eta urtero 6 milioi turista joaten dira horietara.

Kanpin horiek zer egoeratan dauden aztertu nahi izan du EROSKI CONSUMERek, eta, horretarako, 100 kanpin bisitatu ditu Espainiako Estatuko 18 probintzian: 10 Bartzelonan eta Madrilan; 7 Alacanten, Asturiasen, Kantabrian eta Valentzian; 6 Malagan, Murtzian, Nafarroan eta Sevillan; 5 A Coruña, Granadan eta Gipuzkoan; 4 Zaragozan; 3 Bizkaian; eta 2 Valladoliden, Kordoban eta Gasteizen. Aztertu ditugun guztien erdiak baino gehiago (61), 2. mailakoak izan dira; beste 24, berriz, 1. mailakoak, eta gainerako 15ak, 3. mailakoak. Lehenik eta behin, kanpin horietako arduradunekin hitz egin dugu, instalazioek zer-nolako ezaugarriak dituzten jakiteko, eta, ondoren, aldizkariaren teknikariak, bezeroen itxurak eginez, kanpinetara bertara joan dira, ikusi egin nahi zituztela esanez. Bisita horietan, instalazioak nola zainduta dauden aztertu dute; zer-nolako irispideak eta segurtasuna dituzten; zer neurriekin hornituta dauden, bai osasun-arreta eskaintzeko eta bai bestelako ekipamendu eta zerbitzuei erantzuteko; eta erabiltzaileari zer-nolako informazioa ematen dioten ere neurtu dute. Gainera, kanpin horiek goienboraldian dauzkaten tarifak ere aztertu dituzte.



Ondorioak ateratzen hasita, hauxe izan da lehena: hiru kanpinetatik batek ez du gainditu azterketa, gabezia handiak –eta larriak– eduki baititu iris-garritasunean, eta hutsuneak segurtasunaren eta zerbitzuen ataletan (2007. urtean ere antzeko azterketa bat egin genuen, eta orduan ere antzekoa izan zen emaitza). Azterketa gainditu ez dutenen ondoan, badira emaitza hobekak atera dituztenak ere: kanpinen heren batek emaitza ‘onargarria’ atera du, beste 31 kanpinek emaitza ‘oso ona’ eskuratu dute, eta izan dira emaitza ‘oso ona’ lortu dutenak ere (3 kanpin). Kanpin motaren arabera, 1. mailakoek izan dituzte emaitzarik onenak (batez beste, ‘ona’), 2. mailakoek ‘onargarria’ atera dute, eta 3. mailakoek, oro har, ez dute gainditu azterketa (‘hala-holako’ emaitza.) Probintziak ere badira aldeak eta nabarmentzeko moduko datuak: Kordoban, Nafarroan, Valentzian eta Valladoliden aztertu ditugun kanpinek emaitza ‘ona’ lortu dute; gainerako probintzietako kanpinen erdiek, aldiz, ez dute gainditu maila ‘onargarria’, eta badira azterketa gainditu ez duten probintziak ere: A Coruña, Asturias, Murtzia, Sevilla eta Zaragoza.

INFORMAZIOA: ONENA, 1. MAILAKOETAN

Ikerketaren abiapuntu gisa, teknikariek ariketa-txo bat egin dute: hautatu duten kanpinera iristea zaila den edo ez egiaztatu nahi izan dute. 100 kanpinetatik 80tan, arazorik gabe iritsi dira, eta emaitza, beraz, ona izan da atal horretan.

Kanpinetara sartzeko atean bertan edo sarbi-dean, erabiltzaileentzako informazioa egon ohi da, baina erdiek soilik eduki dituzte tarifak jarrita, eta erabilera-arauak eta irekitze- eta ixte-datak ere erdietan baino ez dituzte ikusi teknikariek. Behin barrenera sartuta, harreragunera joan dira teknikariak (kanpin guztiek eduki dute halako gune bat, bik izan ezin; horietan, kanpinetako taberna erabiltzen dute horretarako). Harreragune horiek, batez beste, 12 orduz egoten dira irekita egunean. Kanpinetako instalazioei lehen begiratuan hartzen zaien itxura oso garrantzitsua da, baina hori bezain garrantzitsua da harrera egiten duen langileak ematen duen tratua: alderdi hori egoki zaindu dute guk aztertu ditugun kanpin guztiek. Era berean, komeni izaten da, lehen unetik beretik, plano edo mapa bat eskaintzea bezeroari, zerbitzu bakoitza non dagoen jakin dezan eta galduta ibil ez dadin, baina 52 kanpinetan soilik egin dute hori.

Jakina da Espainiako Estatuko erkidego batzuetan, hizkuntza ofizial bat baino gehiago dagoela, eta atzerritik datozen turistek ere beren hizkuntza ekartzen dute. Horregatik, komeni izaten da kartelak eta seinaleak hizkuntza batean baino gehiagotan egon daitezela. Guk aztertu ditugun kanpin guztietatik, 65ek soilik daukate informazioa hizkuntza batean baino gehiagotan. Gainerakoek, gaztelania hutsez ematen dute.



Oro har, honako probintzia hauetako kanpinetan eskaini dute informaziorik osatuena: Valladolid (‘oso ona’) eta Murtzia, Madril, Gipuzkoa, Kordoba, Bartzelona eta Alacant (‘ona’ guztiek).

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK: GUTXI ETA HOBETZEKO MODUKOAK

Bezeroak kanpin batean gustura egon daitezten, ekipamenduz eta zerbitzuz ongi hornitua egon dadin komeni da. Atal horretan eta azterketak erakutsi duenez, zer hobetu ugari daukate kanpinek, eta batez besteko emaitzak ere horixe adierazten du: ‘onargarria’ baino ez da izan. Ekipamendu-eskaintzarik onena Araban, Alacanten, Bartzelonan, Kordoban, Valentzian eta Valladoliden antzeman dugu (emaitza ‘ona’); eskasena, berriz, A Coruñan, Sevillan eta Murtzian (lehen biek ‘hala-holako’ emaitza eskuratu dute eta hirugarrenak emaitza ‘txarra’). Kanpinak mailaka hartuz, 1. mailakoek eskaintza ‘ona’ eduki dute, 2. mailakoek ‘onargarria’ eta 3. mailakoek ‘hala-holako’ (beraz, ez dute gainditu azterketa).

Jende askok kirola egiteko erabiltzen ditu oporteko egunak. Kanpinetan egin dugun azterketak argi utzi du, dena den, horietako askok ez daukate kirola egiteko instalaziorik: hogeitau kanpinetan soilik daukate futboleak, saskibaloian edo areto-futboleak aritzeko guneak; 33 kanpinetan baino ez ditugu ikusi erabilera anitzeko kirol-zelaiak; 27 kanpinek soilik eduki dute tenis-pista; eta gimnasioa, berriz, 7k baino ez. Ez da berdin gertatzen igerilekuekin: lautik bakarria topatu dugu igerileku bat ere ez duena.

Haurrak dituzten familientzat oso baliagarria izaten dira haiek jolasteko guneak. Aztertu ditugun 100 kanpinetatik, 85ek eduki dituzte, eta ongi zainduta egon dira, gainera.

KANPINEN EMAITZAK, PROBINTZIAKA, EROSKI CONSUMERREN ARABERA

Probintzia	Erabiltzaileentzako informazioa ⁽¹⁾	Mantentze-lanak eta garbitasuna ⁽²⁾	Irisgarritasuna ⁽³⁾	Ekipamenduen eta zerbitzuen ⁽⁴⁾	Segurtasuna eta mediku-arreta ⁽⁵⁾	• AZKEN EMAITZA
A CORUÑA	Onargarria	Onargarria	Txarra	Hala-holako	Txarra	• Hala-holako
ARABA	Onargarria	Oso Ona	Txarra	Ona	Onargarria	• Onargarria
ALACANT	Ona	Oso Ona	Txarra	Ona	Onargarria	• Onargarria
ASTURIAS	Onargarria	Ona	Oso Txarra	Onargarria	Hala-holako	• Hala-holako
BARTZELONA	Ona	Oso Ona	Txarra	Ona	Onargarria	• Onargarria
BIZKAIA	Hala-holako	Ona	Hala-holako	Onargarria	Hala-holako	• Onargarria
GIPUZKOA	Ona	Bikaina	Hala-holako	Onargarria	Ona	• Onargarria
GRANADA	Onargarria	Bikaina	Txarra	Onargarria	Ona	• Onargarria
KANTABRIA	Hala-holako	Ona	Txarra	Onargarria	Onargarria	• Onargarria
KORDOBA	Ona	Oso Ona	Onargarria	Ona	Ona	• Ona
MADRIL	Ona	Oso Ona	Txarra	Onargarria	Onargarria	• Onargarria
MALAGA	Onargarria	Oso Ona	Hala-holako	Onargarria	Ona	• Onargarria
MURTZIA	Ona	Oso Ona	Txarra	Txarra	Onargarria	• Hala-holako
NAFARROA	Oso Ona	Oso Ona	Txarra	Onargarria	Ona	• Ona
SEVILLA	Onargarria	Ona	Txarra	Hala-holako	Hala-holako	• Hala-holako
VALENTZIA	Onargarria	Onargarria	Txarra	Ona	Oso Ona	• Ona
VALLADOLID	Oso Ona	Bikaina	Onargarria	Ona	Ona	• Ona
ZARAGOZA	Hala-holako	Ona	Txarra	Onargarria	Hala-holako	• Hala-holako
BATEZ BESTEKOAK	Onargarria	Oso Ona	Txarra	Onargarria	Onargarria	Onargarria

100 kanpin aztertu ditugu, Espainiako Estatuko 18 probintzietan: 10 Bartzelonan eta Madril; 7 Alacanten, Asturiasen, Kantabrian eta Valentzian; 6 Malagan, Murtzian, Nafarroan eta Sevillan; 5 A Coruñan, Granadan eta Gipuzkoan; 4 Zaragozan; 3 Bizkaian; eta 2 Valladoliden, Kordoban eta Gasteizen. Erdiak baino gehiago (61), 2. mailakoak izan dira; beste 24, berriz, 1. mailakoak, eta gainerako 15ak, 3. mailakoak. 1. Erabiltzaileentzako informazioa: bezeroei zenbat informazio eta nolako ematen zaien aztertu dugu, bai kartelen bidez, bai seinale bidez, harrera-ordutegiak ageri dituzten, zer hizkuntzatan dauden seinale horiek, kanpin barrenean maparik edo planorik badagoen, eta erreklamazio-libururik eta iradokizun-kutxarik baduten. 2. Mantentze-lanak eta garbitasuna: aintzat hartu dugu kanpinera iristeko bidea asfaltatua egon den edo ez. Kanpina garbi eta ongi zainduta egon den aztertu dugu. Arreta berbera jarri diegu komunei, kafetegiarri, haurrak jolasteko guneari, eta arropa- eta ontzi-garbitegiari. Zabor edukiontzietan ere errepertatu diegu, eta jakin nahi izan dugu zabor orotarikoa biltzeko edukiontzia badituzten eta hondakinak gaika sailkatzeko ere bai. 3. Irisgarritasuna: instalazio horietako hainbat gune zer-nolako irispideak dituzten aztertu dugu: komunek, telefono publikoek, eremu itxietako aparkalekuek... Kontuan hartu dugu, gainera, kanpina egokitua dagoen edo ez itsuen beharretara (kartelak braillez idatzita dauden). 4. Ekipamenduen eta zerbitzuen: kanpin bakoitza zer-nolako zerbitzuz hornitua dagoen aztertu dugu; adibidez, zenbat dutxa, komun, garbitegi, garbigailu... dituen; kirola egiteko eta haurrak jolasteko gunerik baduen; aparkalekuek badituen; aisialdiko zer ekintza eskaintzen dituen; zaborontziak, kaleargiak, bankuak, iturriak... badituen; su-permerkatua, taberna, jatexea, kongsina, igerilekua, kutxa automatikoak, posta-zerbitzua, Internetarako sarbidea, prentsa-saltokia... badituen. Denek erabiltzeko eremuetan ur berorik baden ere aztertu dugu (dubetan, garbitegiaren...). 5. Segurtasuna eta mediku-arreta: zaindaririk egon den aztertu dugu (egunez eta gauzez), eta beste hainbat alderdiri ere errepertatu diegu: suteen aurkako gailuak (su-itzalgailuak, hodi malguak, ur-ihintzagailuak...); larrialdi-ateak, -argiak eta -irteerak; instalazioen argiztapena; arriskuak izan daitezkeen elementuak (kable elektrikoak agerian, goi-tentsioko dorreak), eta abar. Kontuan hartu da zerbitzu medikurik eduki duten eta osasun arloan zer-nola hornituta egon diren: botika-zerbitzua eduki duten, sendaketa-gela edo enizandegia baduten, eta igerilekuetan sorosleak egon diren. Oso ontzat jo dugu erabiltzaileei jakinaraztea zein diren alarma-neurririk, kanpina nola hustu behar litzatekeen eta larrialdietan zer egin behar den, eta kanpin barruan ibilgailuen abiadura mugatzea ere egokituz jo dugu.

Kanpinak, mailaren arabera



“Luxuzko” kanpinak. Sarrerako kartelean lau kanpin-denda (triangelu) eduki ohi dituzte. Denda jartzeko eremu bakoitzak elektrizitatea izaten du, ur beroa izaten da komun eta dutxa guztietan, eta bakoitzak bere kutxa gotorra eduki dezake.



1. mailako kanpinak. Hiru denda-triangelu ageri dituzte kartelean. Banakako telefono-kabinak izaten dituzte, ur beroa komun guztietan eta dutxen % 50etan, eta banakako kutxa gotorrak. Denda jartzeko eremuen % 50-75etara iristen da elektrizitatea, eta zerbitzu osagarriak aski osatuak izaten dira, goren mailakoan antzekoak.



2. mailako kanpinak. Bi denda-triangelu izaten dituzte. Ez dute alde handirik izaten 1. mailako kanpinekin; ez dira egoten aurrekoak bezain leku “onean”, baina zerbitzu aldetik antzekoak dira.



3. mailako kanpinak. Denda-triangelu bakarria eduki ohi dute. Alderdi handiena honako alderdi hauetan izaten dute: komun kopurua, zoruaren ezaugarriak, pertsona bakoitzari dago-kion gainazala...

Ostalaritza-zerbitzuak eta jatetxeak ere aintzat hartzekoak dira. Murtzian aurkitu dugun kanpin batek izan ezik, gainerako guztiek taberna bat eduki dute, gutxienez; hamarretik zortzitan supermerkatua egon da, eta lautik hirutan jatetxea (eguneko menuak, batez beste, 10 euro balio izan du). Teknikariek arreta berezia jarri nahi izan die- te tabernei, baina 11 kanpinetan itxita eduki di- tuzte, denboraldia hasi gabe egon baita. Oro har, garbi egon dira, baina 33 tabernak ez dute age- rian eduki prezioen zerrenda, eta beste 21etan, agerian egon arren, ia ezin izan dira ikusi.

Kanpin asko landa-eremuan edo mendi-inguruan daude, baina horrek ez du esan nahi teknologia berriak iritsi ez direnik. Kanpinen erdiek baino gehiagok daukate ordenagailu-gela Interneten nabigatzeko. Norberak bere ordenagailua erabili nahi badu, hamarretik ia bederatzik kanpinetan, wifi gunea erabil dezake. Internet erabiltzeko modurik ematen ez duten kanpinak ere aurkitu ditugu (14). 2. mailakoak izan dira erdiak, 3. mai- lakoak beste bost, eta, bitxia bada ere, 1. mai- lakoak beste bi.

MEDIKURIK? EZ, BOTIKA-ONTZIA SOILIK

Edozein osasun-arazo gertatzen dela ere, osasun- etxe batera joatea izaten da ohikoena, baina os- tatu hartu dugun lekuan medikuren bat egonez gero, askoz hobeki. Kanpatuta gauden lekuak osasun-zerbitzu ona edukitzea garrantzitsua da, eta halaxe eduki dute guk aztertu ditugun gehie- nek, bik izan ezik, non ez duten eduki botika-on- tzirik ere (3. mailakoak izan dira biak). Gainerako guztien artean, zortzik baino ez dute eduki me- diku-zerbitzua (1. mailakoak izan dira erdiak, eta

2. mailakoak beste erdiak), 15ek erizaindegi guz- tiz egokitua eduki dute, eta 30ek larrialdiko sen- daketak egiteko gela bat. Kanpin gehienek (89k) botika-ontzi bakarra daukate, eta deigarria egin zaigu hori. Bitxia bada ere, 2. mailako kanpinak egon dira ongien hornituta osasun arloan.

Instalazioen segurtasunari dagokionez, oso ga- rrantzitsua da kanpinak ez egotea inguru arris- kutsuetan (ibaiei ibilguan...), eta baldintza hori ongi bete dute guk aztertu ditugun guztiek. Baina segurtasunaren auzian, alderdi gehiago ere hartu behar izaten dira kontuan, kanpin barrenean ere modu seguruan ibiltzeko. Ildo horretan, kanpinen % 88k larrialdi plana eduki dute, % 6k pentsatu izan dute plana egitea, baina ez dute idatziz jarri, eta beste % 6k, berriz, ez daukate ez planik, ez egiteko asmorik. Azken horien ustez, "ez da be- harrezkoa". Larrialdi-plan hori daukaten kanpinen artean, lautik hiruk baino gehiagok baieztatu dute urtero berrikusten dutela segurtasun-proiektu hori; % 18k, berriz, denboraldi hasieran egiten dute, eta beste % 3ren iritziz, nahikoa da bi urtez behin eginda. Baina deus gutxirako balioko luke larrialdi-plan bat edukitzeak, baldin eta kanpi- nean lanean ari direnek ez badute formaziorik jaso prebentzio- eta segurtasun-gaietan, eta ez badakite zer egin istripu bat gertatzen denean. Kasu horretan ere oso ona izan da emaitza, eta ia kanpin guztietako langileek baieztatu dute ba-



Nola hautatu kanpinik onena

Kokapena: seinale bidez adierazia egon behar du kanpina non dagoen eta hara nola iristen den, alferreko itzulngururik ematen ibili beharrik ez izateko. Era berean, eta behin kanpin barrenean gaudela, ekipamendu eta instalazio guztietara iristeko seinaleak ere behar dira, erabiltzaileek ez dezaten izan arazorik komunak, igerilekua, harrera- gunea edo supermerkatua aurkitzeko.

Segurtasuna: kanpinak hartzen duen eremu guztiak hesitua egon behar du, eta segurtasun-zer- bitzuak eduki behar ditu. Era berean, toki seguruan dagoela egiaztatu behar dugu (inola ere ez du egon behar ezponda batean, euri-bideetan, ibaien ibilgu lehortuetan, edo osasunarentzat kaltegarri diren lekuetatik gertu). Gainera, larrialdi-plan on bat ere eduki behar du kanpinak.

Profesionaltasuna: kanpinean lanean ari dire- nek profesionalak izan behar dute, eta kanpinzaleen beharrei eta sor dakizkiekeen arazoei erantzuteko gertu egon behar du. Egokiena litzateke, kanpinza- leak iristen direnean, norbaitek argibideak ema- tea eta ongi azaltzea zer programazio daukaten,

zerbitzuek eta jarduerak zer ordutegi duten, gauza bakoitza non dagoen, zer egin behar den larrial- diren bat gertatuz gero, zer-nolako arauak dituen kanpinak, edo zer zerbitzu diren bereiz ordaintze- koak (aparkalekua, garbigailuak...).

Garbitasuna: kanpalekuek behar bezala ego- kituta egon behar dute, eta ahal dela, itzala ere eduki behar dute, bero gehien egiten duen egune- tarako. Garbi eta ongi zainduta egon behar dute komunak, igerilekuek, kirolguneek, arropa- eta ontzi-garbitegieki, eta kanpin barreneko instalazioek (taberna, jatetxea, areto soziala, harreragunea, supermerkatua...).

Osasun-arreta: larrialdiko botika-ontzi bat, gutxienez, eduki behar dute kanpin guztiek. Era horretan, zauririk edo lesiorik arinenak artatu ahalko dituzte, osasun-etxe edo ospitale batera joan gabe (beharrezko bada, joan egin beharko da, jakina).

Erreklamazioak: egonaldia ez bada izan nor- berak uste zuen modukoa, kanpinak erreklamazio- liburu bat eduki beharko du bezeroentzat, baita iradokizun-orriak ere.

dakitela zer egin behar duten arrisku-egoeretan (2. mailako lau kanpinetan aurkitu dugu salbues- pena). Larrialdi-itxuratzeak edo simulakroak egin dituzten galdetuta, ordea, lautik ia batek baino ez du egin halako bat azken urtean (2. mailakoak izan dira 14, 1. mailakoak 9 eta 3. mailakoa beste bat), eta Bizkaian, Gipuzkoan, Kordoban, Sevillan eta Zaragozan aztertu ditugunetatik, batek ere ez.

Teknikariek aztertu dituzten kanpinen % 3tan (A Coruña bitan eta Murtziako batean), ez dute eduki inolako segurtasun-sistemarik: ez zaintzai- lerik, ez segurtasun-kamerarik; halako sistemak eduki dituztenen artean, % 44tan biak ikusi di- tuzte, zaintzaileak eta kamerak. Gainera, bisita- tu dituzten kanpinen erdietan baino gehiagotan, zirkulazio-seinaleak antzeman dituzte, kanpin barrenean abiadura mugatzeko (10 km/h-ko abia- dura ezarri dute barruti osorako), eta kanpaleku bakoitzeko elektrizitate-hargailuak babestuta daudela ikusi dute (Bartzelonako eta Murtziako batean izan ezik).

KANPINAK, BATZUENTZAT BAINO EZ IRISGARRIAK

Kanpinek guztientzat izan behar lukete irisga- rriak, baina ez dira: EROSKI CONSUMERek bisita- tu dituen 100 kanpinetatik, 40 ez daude egoki- tuak, 31k komunak soilik egokitu dituzte pertsona ezinduentzat, eta lauk baino ez dituzte egokitu



Kanpin gehienetan
botika-ontzia
daukate, baina medikurik ez

Aztertu ditugun kanpinak ez daude egokituak ikusmen urritasuna dutenentzat

jatetxea, harreragunea eta igerilekua. Beste muturrean, 25 kanpinek guztiz egokituak eduki dituzte instalazio guztiak ezintasun fisikoren bat daukatenak ere ongi molda daitezzen (Valladoliden aztertu ditugun biak nabarmendu behar dira). Gurpil-aulkian joan behar dutenentzat, oro har, egoera ez da ona, baina are okerragoa da ikusmen-arazoak dituztenentzat: kanpin bat bera ere ez dago egokitua horientzat.

Azterketa egin ondoren, ondorio garbia atera dugu: irisgarritasunaren atalean, ez du axola kanpina zer mailatakoa den. 1. mailakoek, adibidez, 'hala-holako' emaitza atera dute, batez beste (ez dute gainditu azterketa), eta beste bi mailetakoei emaitza 'txarra'.

GARBIENAK, 1. ETA 2. MAILETAKOAK

Kanpin bat segurua izan daiteke, merkea, irisgarria edo zerbitzuz eta ekipamenduz ongi hornitua, baina horrek ez du askorik balio, baldin eta ez badago txukun eta ongi zainduta. Atal honetan, ez dago alderik 1. eta 2. mailako kanpinen artean. Emaitza 'oso ona' lortu dute guztiek, eta 3. mailakoek, berriz, 'ona'.

Kanpinak eskaintzen dituen zerbitzuei erreparatuz gero, lautan soilik ikusi dugu taberna zikin zegoela, eta zikin egon dira, halaber, Sevillako eta



A Coruña bi kanpinen komunak eta Madrilgo beste batena. Azkenik, Zaragozan aztertu ditugun kanpinen erdietan, zikinkeria handia antzeman dugu haurrak jolasteko gunean, eta berdin gertatu da A Coruña laurik batean. Arropa eta ontziak garbitzeko lekuak garbi egon dira ia kanpin guztietan. Salbuespen gisa, A Coruña bi kanpin nabarmendu behar da, oso zikin egon da eta.

Zaborrontziak eta edukiontziak oso lagungarriak izaten dira leku horiek garbi edukitzeko, eta are hobea izaten da hondakinak gaia sailkatzeko aukera ematen badute. Aztertu ditugun kanpin ia guztiek eduki dituzte hondakin organikoak birziklatzeko edukiontziak, baina ez da berdin gertatu gainerako edukiontzi motekin: % 65etan ikusi ditugu papera eta plastikoa botatzekoak, % 78tan beirarentzat izaten direnak, eta % 69tan pilak biltzekoak.

KANPINIK GARESTIENETAKOAK, BARTZELONAKOAK

Kanpinak aukera ona ematen du aire zabalean egun batzuk pasatzeko, nahiko modu onean. Hori da, behintzat, jendearen ustea. Hala ote den egiaztatu eta tarifak alderatzeko, kalkulua egin du EROSKI CONSUMERek, bi familia mota aintzat hartuta: batetik, bi gurasok eta haur batek osatutako familia bat, familia-kanpadenda batekin hamabost egun pasatzera joan dena, abuztuko lehen hamabostaldian (goi denboraldia); bestetik, familia hori bera hartu dugu, garai berean joan dena, baina karabanearekin, eta ez kanpadendarekin.

la ez dago alderik bi egoeren artean: 460 euro kostako litzateke kanpadenda batekin joatea eta 464 euro karabana eramatea. Batez beste, beraz, 462 euro kostatzen da abuztuko lehen hamabostaldia kanpinean igarotzea; 2007an baino % 22 garestiagoa da aurtun. KPla, berriz, ez da horrenbeste igo, % 9 baino zertxobait gehiago tarte horretan. Batez besteko prezio horren gainetik ibili dira, dena den, probintzia hauetako kanpinak: Bizkaia, Valladolid, Malaga, Kantabria, Gipuzkoa, Bizkaia eta Bartzelona (azken horretan aurkitu

ditugu preziorik garestienak); gainerako probintziakoak merkeagoak izan dira, eta merkeenak, Sevillakoak. Tauletan ikus daitezke zeintzuk diren EROSKI CONSUMER aldizkariko teknikariek lortutako datuen arabera, helduek, umeei, autoei, familia osoarentzako dendek eta karabanei ordaindu behar dituzten prezioak.

Era berean, egonaldia ordaintzeaz gain, instalazio edo zerbitzu batzuk erabiltzeagatik ere ordaindu egin behar izaten da zenbait kanpinetan; garbigailu automatikoa eduki duten 91 kanpinetarik, adibidez, bakarrak soilik eskaintzen du doan zerbitzu hori, eta gainerakoetan, 1 eta 6 euro artean kobratzen dute. Berdin gertatzen da lehor-gailu automatikoarekin ere (61 kanpinek daukate): kanpin batean ez dute deus ere kobratzen, eta gainerakoetan, 0,20 zentimoren eta 6 euroren artean dabilta. Sei kanpinetan, berriz, kobratu egiten dute dutxa beroa hartzeagatik (0,5 zentimo eta 4 euro artean).

GEHIAGO JAKITEKO

www.consumer.es

KANPINEN PREZIOAK*

Probintzia	Heldu baten sarrera	Haur baten sarrera	Familia-denda batean eguna igarotzea	Karabana batean eguna igarotzea	Autoa, eguneko
A CORUÑA	4,75	3,48	4,65	6,25	4,11
ARABA	5,65	4,65	--	--	5,65
ALACANT	5,97	4,75	--	--	--
ASTURIAS	4,91	4,09	5,62	6,79	4,33
BARTZELONA	6,89	5,71	8,22	10,44	7,92
BIZKAIA	5,95	4,50	--	--	--
GIPUZKOA	5,10	4,59	5,27	--	--
GRANADA	5,02	3,87	5,17	5,32	--
KANTABRIA	5,28	4,33	6,25	6,92	5,08
KORDOBA	5,47	4,72	--	--	4,55
MADRIL	5,61	5,73	6,05	6,32	5,54
MALAGA	5,65	4,31	6,56	16,75	--
MURTZIA	4,06	3,60	3,87	4	3,87
NAFARROA	5,69	4,80	5,91	6,57	6,06
SEVILLA	4,29	3,35	4,70	4,61	4,04
VALENTZIA	4,35	3,47	4,47	5,27	4,60
VALLADOLID	6,55	5,20	--	7,75	5,60
ZARAGOZA	4,77	4,06	5,53	5,92	4,23
BATEZ BESTEKOA	5,42	4,40	5,68	6,8	5

* Eurotan eman ditugu kopuruak. EROSKI CONSUMERek aztertu dituen kanpinen 2011ko goi-denboraldian izango dituzten tarifaren batez bestekoa egin dugu. (--) Kanpatzeko eremuaren prezio globalean sartua dago.